

Esperantza

FRANÇOIS HOLLANDEK hauteskunde kanpainen agindutakoak beteko baditu, une arras interesgarria bizi daiteke Europar Bata-sunean. Alemania eta Frantziaren arteko lidergo borroka ere gerta daiteke, bai behintzat egia balitz Hollande hazkundera dela eta Merkel austeritatea. Bizi den krisi latz honetan ez da zentzuzkoena aurreikuspen tinkorik egitea, baina orain arte Grezian, Portugalen, Espainian eta Europako beste herrialde batzuetan sozialdemokrasiak nola jokatu duen ikusita, ez dago baikortasunerako tarte handirik.

Baina, bestetik, esperantza izpi bat duten Europako herritar guztiek entzun dituzte hark kanpainen iragarritakoak. EBrekiko bi lerro nagusi finkatu ditu Hollandek. Batetik, Europako Itun Fiskala dago, EBko estatuen aldetik onarpen bidean doana eta, teoriarik, bost urte barru indarrean sartuko litzatekeena, baina praktikan jarduera ekonomiko gisa EB osoan gauzatzen ari dena, estatuak itoz eta atzeraldiak eraginez.

Bestetik, finantza eredia dago, Hollande oso kritikoa agertu da finantza merkatuekin eta erreformak bultzatuko dituela iragarri du. Besteak beste, ekonomien hazkundera bultzatzeko neurri gisa, Europako Banku Zentralak (EBZ) dirua estatuei zuzenean mailegatzea nahi du, interes txiki batekin eta ez, gaur egun bezala, bankuen bidez. Gaitza da halakorik azkar gauzatzea, baina agian posibleago da EBZk estatuak eurobonuekin serioago laguntzea, eta hori askoz samurragoa litzateke. Edo hainbat finantza inbertsio zergapetzea, aspalditik eskatzen ari den moduan.

Hiru langa handi hauen gainetik egin beharko du jauzi Frantziako lehendakari berriak. Bata, Merkel

bera da, baina hau ere ez dago etxafuegoetarako: Hollande ez da Sarkozy izango; EBn gero eta isolatuago dago; eta, batez ere, bere koalizioa gobernua indarra galtzen ari dela adierazi dute Alemaniako hainbat inkesta eta hauteskunderak. Bigarren langa merkatuena da, eta hauek laster mintzatuko dira. Eta hirugarrena, barne mailakoa da, Frantziaren bertan ezarri nahi duen aire berria indarrean jartzeko ekerrak Legebiltzarrerako ekaineko hauteskunderak irabazi behar ditu eta.

Gaitza da irudikatzea Hollande horri guztiari aurre egiten, besteak beste merkatuei aurre egitea esan nahi duelako, eta hori gaur gaurkoz hil ala biziko borroka delako. Errazagoa da pentsatzea, Alemaniak amore emanda, hazkunderari begira hainbat neurri hartuko direla, hori bai, funtsean Europaren Egonkortasunerako Ituna zalantzan jarri barik. Baina batek daki, Greziako hauteskunderetako emaitzek erakusten duten moduan, Europar txinpartak dantzan dira eta ezin da esan zein zelai erreko den edo zein ez. Gaitza da, baina bere jarrerak esperantza izpi bat piztu du Europa osoan, hori ere egia da.

ESPAINIAKO egunkari irakurrienean agertzen zen duela egun batzuk zapata hegalarien istorioa. Lehen zapata horietakoa kazetari batek jaurti zion George W. Bushi Bagdaden, 2008an. Bigarren

Zapata hegalariena baino istorio larriagoak dira hauek, euskal kazetari eta herritarrei maiz gertatutakoak

zapata herritar kurdu batek botatzen zion Turkiako agintari Recep Tayyip Erdogan Sevillan, 2010ean. Bagdadekoak bederatzi hilabete egin zituen espetxean eta libre ateratzen, kurduak hiru urteko zigorra jaso eta oraindik Espainiako espetxe batean da. Albistea idatzi duen kazetariarentzat eskandalua da Hokman Joman kurduari gertatu zaiona. Eta ez zaio arrazoirik falta. Ondoren datorrena "Dena da ETA"-ren enegarren kapitulua da.

Zapata hegalariena baino istorio larriagoak dira hauek, euskal kazetari eta herritarrei maiz gertatutakoak. Javier Salutregi, Teresa Toda, Jesus Mari Zalakain, Arnaldo Otegi, Rafa Diez, Miren Zabaleta, Sonia Jacinto... eta beste dozenaka herritar beren jardura profesional edo politikoagatik zigortu zituen Espainiako Auzitegi Nazionalak, ETAkoak izan edota haren agindua betetzea leporatuta.

Berdintsu gertatzen zaie D3M eta Askatasuna auzietan epaituak izaten ari diren 13 euskal herritarrei, eta zazpi eta bederatzi urte arteko espetxe zigorra eskatzen zaie ezker abertzalearen siglak hauteskunderetara eraman nahi izanagatik. ETAren aginduz hauek ere. Bai lehen, bai orain PP eta UPNko politikariei lasai entzuten zaie esaten merezi dutela eta kito. PSEkoak, orain, tentu handiagoz ibiltzen dira eta esaten dute ETA aritzen zen bitartean ezin zela baimendu berau kondenatuko ez zutenak hauteskunderetan normaltasunez aritzea. Zigor eskaerei buruz, justiziak erabaki behar duela, noski, baina garai berriak ere kontuan hartu behar direla.

Orain zera gertatzen da: Estatuaren biolentzia dela baldarra, eta agerian geratzen den bakarra.

